

## LAUDIO

Laudioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren -HAPO-ren 36. Aldaketa Proiektua (Landeta) 25. Etxebizitza Aldearen egiturazko eta zehaztepeneko ordenaziorako.

Denon ezagueran jartzen da, 2012ko maiatzaren 28an Udal honetako Udalbatzak egin zuen Osoko Bilkuran hartu zuen akordioaren atal erabakitzaile hauxe duena:

“Lehena.- Onartzea, hasierako izeraz, HAPOren 36. Aldatze-Proiektua (Landeta aldeko) 25. Etxebizitzen Zona egituraz eta zehazki ordenatzeko, Sociedad Integral de Servicios Urbanísticos S.A. (Sigusa) enpresak 12-03-12 eguneko 3024 sarrera zk.z aurkeztu eta hartu dugun eta A.R.62-Arquitectura, S.L. eta Izer-Abogados-ek landutako proiektu teknikoaren arabera.

Bigarrena.- Erabaki hau eta HAPO aldatzeko espedientea jendearen eskura eta jendaurreko erakusketa aldian jartzea hilabeteko epean zehar, dagokion iragarkia argitaratuta Udaletxeko iragarkien oholztan, ALHAOn eta Araban zabalkunderik handieneko egunkariren batean. Epea hasiko da azken argitaratze eguneko biharamunetik.

Hirugarrena.- Jakinarazpena ematea hasierako izaera duen onartze-erabaki hau, proiektuaren bi alerekin batera, Foru Aldundiari (Ogasun Zerbitzuari eta Errepide Zuzendaritzari), aldatze horrek eragiten dielako bere titulartasuneko ondasunei (7. Poligonoko 17-25-26-30-32-37-38-42-45-47-48-49-51-54-56 katastro partzelei), eta zona horren mugaide den A-625 errepidea bere eskumenekoa denez, jakinaren gaineran gera dadin eta txostena eskain diezagun.

Laugarrena.- Jakinarazpena ematea onartze-erabaki hau proposatu duenari eta kontzertazio-sistemaz proiektatutako ordenazioaren exekuziorako aurkeztutako dokumentuaren arabera ordenazioz kanpo deklaratzeko proposatu diren Gasteiz kaleko 12. Eta 30. Zk. duten erakinetako etxebizitzien ugazaba eta jabeei.”

Espedientea lanegunetan egongo da ikusgai, goizeko 9:00etatik 14:00etara, Hirigintza eta Ingurumen Bulegoan, Herriko Plaza, z/g 3. solairuan.

Laudio, 2012ko maiatzaren 29a

Alkateak,

-Jon Iñaki Urkixo Orueta-